

# SORGIÑAK

**ZERGAITIK SINISTU?**—Gaurko egunean biotzeko gaisoaldia zer dan ba dakigu. Sasoizko gizon bateri, osasun betean egonik, biotzeko atake batek emoten badautso, bapatean lurrera jausten da.

Leenago onelako gauza bat sorgiñen gaiztakeria zala uste eben.

Guk gaur ba dakigu udan, egun bero, eguzki eder baten ondoren, sargori danean, trumoiak joten dauala.

Zerua bapatean lañotu eta euriaren ordeaz arria jausten da lañoetatik, soloko gari, maats eta igaliak alperrik galdurik.

Ori ere leen sorgiñak egiña zala uste eben.

Orain guk ba dakigu itxasoan aize gogorrek jotzen dauanean, olatuak anditu, urak arrotu eta arrantzaleak itoteko arrisku andian egoten dirala.

Ori ere leen sorginkeritzat artzen eben.

\* \* \*

**ZELAN JAKIN?**—Nor zan sorgin, eta nor ez jatiteko, bide asko egozan, baiña nik iru errezenak eta ezagunenak bakarrik emen irakatsiko ditut.

Sorgin zalakoari zapi bategaz begiak estaldu, tapatu, eta orratz bategaz gorputzean xixkatu (pintxatu), eta orratzaren miñik ez ba'eban sentitzen, sorgiña zan, zalantzarik gabe.

Ezkerreko begira begiratu, eta begi-erdian «sapo-anka» antzeko zerbait ikusten jakon, sorgiña zan.

Sorgin-gaia, emakumea naiz gizona, pixu edo balantza batean pixatu, eta itxuraz emoten eban baiño pixu gitxiago ba eukan, ziur-ziur sorgiña zalako zan.

\* \* \*

**ITUREN ERRIAN.**—Ara zer jazo zan 1525 urtean Naparroa'ko Ituren errian.

Erri ori, askoren ustez, sorgiñez beterik ei egoan.

Naparroako agintari nagusiak epaille edo juez bat bialdu eban ara sorgiñak arrapatu eta merezi eben zigorra emoteko.



Huarte'ko Anton zan juez jakintsu orren izena, eta soldadu-talde andi batekin errian agertu zan.

Erriko bizilagunak, amalau urtetik gorakoak erriko enparantzan edo plazan bildu zituan, eta zazpi urteko ume txiki bat artu eban testigutzat nortzuk ziran sorgiñak jakiteko.

Neska orrek Izarozko Gratziana eban izena.

Erriko enparantzan korroan jarri eta ume ori banan banan joan zan, bakoxtari ezkerreko begira begiratzen, ia «sapo-anka» nori ikusten eutson.

Azkenean 10 emakume aukeratu zituan sorgintzat eta gizon bi.

Gure epaille edo juez jakintsu onek ama biak preso eroan zituan Iruña'ra ango espetxean euren zigorra, kastigua artzeko, eta bai ederra artu ere.